

bidaiari

naiz: en bidaia aldizkaria

2022ko urria | 013. zenbakia | 1,50€



ANDAMANGO ITSASOAN BARRENA

Uharte amaigabeen paradisua

KOKS | PERIGORD | SIGMUND FREUD PROMENADE | WASHINGTON | SUITZAR ALPEAK | QAL'AT JA'BAR



Badago ezagutzeko mundu bat



bidaiari
naiz:-en bidaia aldizkaria

11 ZENBAKI URTEAN, 15€

HARPIDETU ZAITEZ!

URTEKO HARPIDETZA Euskal Herrian 15€ · Ipar Euska Herrian 25€ · Estatu espainolean 18€ · Europan 50€

Bidal ezazu kupoi hau honako helbide honetara:

Bidaiari Portuetxe 23, 2. solairua 20018 Donostia (Gipuzkoa) EUSKAL HERRIA

Izena			
Abizenak			
Helbidea			
Herria	Posta Kodea	Herrialdea	
NAN	E-Posta	Telefonoa	
Kontu korrante zenbakia			
Kontuaren Jabea			

Nahiago izanez gero, mezu elektronikoa bat bidal dezakezu bidaiari@astero.net helbidera, kupoiaren azaltzen diren datuekin edo www.naiz.eus/bidaiari web orrian sar zaitezke eta harpideteko formularioa bete dezakezu.

Urruina distribution & services, S.L.-ren produktuei eta/edo sustapenei buruzko informaziorik jaso nahi ez baduzu, markatu X bat laukian ☐

Sustapen honen barruan jasotako datu pertsonalak Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) eta Urruina distribution & services SL-en (Kale Nagusia 2 - 4, 48001 Bilbo) datu-base batean sartuko dira. Datuak guztiz konfidentzialak dira, datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko lege Organikoari jarraiki. Nolanahi ere, eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo ezereztzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu. Horretarako, Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) helbidera jo behar duzu.

bidaiari 013

2022ko urria

Zazpi Haizetara
aldizkariaren 162.
zenbakia litzatekeena

AZALEKO ARGAZKIA:

Gonzalo

AZURMENDI

ARGITARATZAILEA:

Astero.

Herritar Berri SLU.

Zazpi Haizetara

aldizkariaren lan

taldeak ekoiztua.

EDITOREA:

Eguzki

Agirrezabalaga

eta Ion Jimenez

JATORRIZKO DISEINUA:

Grafik Sarea +

Artefakto

MAKETAZIOA:

Oiartso

Los Arcos Urbina

EGOITZA:

Portuetxe, 23 -2. A

20018 Donostia

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

bidaiari@astero.net

TELEFONOA:

943 31 69 99

www.naiz.eus/bidaiari

LEGE GORDAILUA:

01361-2021

INPRIMATZEN DU:

Printek

Inprimategia.

Zamudio



KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

bidaiari 013

AURKIBIDEA



06 ANDAMANGO ITSASOAN BARRENA

Thailandiako mendebaldean, Andamango itsasoan, zentzu berezia hartzen du bizitzak. Ana Vegaren hitzek eta Gonzalo Azumendiren irudiek bertako ur garden eta lasaietan nabigatzera eta bainatzera eramango gaituzte eta irletako biztanleen izaera alaia gerturatuko, bertako gastronomia askotarikoaren mila usain eta zapore dastatzen dugun bitartean.



14 PERIGORD Beltz, berde, zuri eta purpura. Lau koloretako lurraldea da Perigord, aztarna neolitikoz, Erdi Aroko gaztelu eta hiriez eta ibai bihurritz josia.



28 FREUD PROMENADE “Izotzetako gizona”-ren eta psikoanalisiaren aitaren pausoei segika, konifero baso eta mendi larreen artean, Hego Tirolen.



36 WASHINGTON Udazken kolorez beterik da AEBeko hiriburua, bere parke eta kaleetan oinez zein bizikletaz ibiltzeko parada ezin hobea.



22 **KOKS** Jatetxea iceberg artean 44 **SUITZAKO ALPEAK** Naturaren artelanik gorena 50 **BERTATIK BERTARA** Orbaibarreko erromaniko enigmatikoa
54 **BERTATIK BERTARA: EGIN PLANAK!** Izan Bidea jaialdia, gure bideak, “Black is Beltza”, 72-22 Topaketak... 56 **HIRIAK MOTZEAN** Qal'at Ja'bar, irila bihurtu zen zitadela 60 **MUNDUAN PASIERAN** Gabori eskutitzak, klima aldaketa, tornado baten barruan, akrobaziak Gizan...



ZENOTEAK

Babestu beharreko ondare natural eta kulturala

Pablo Nerudak gonbidatuta Espainiako 1936ko gerrara abiatu aurretik, Octavio Paz idazle mexikarrak, etorkizun hurbila eta abizena go-goan, Mexikoko eremu baketsuenean igaro zituen egun batzuk: Yucatango penintsulan. Bertan, kareharrian urak zulatutako barrunbe batzuekin maitemindu zen. *Ts'ono'ot* esaten diote halako putzuei bazterrotako biztanle diren maiek, “zenote” izenean eratorri dena, “ur-zuloa”. Milioika urtez higatutako haitzulook deskribatu zituen Literatura Nobel saridunak “Entre la piedra y la flor” (“Harriaren eta lorearen artean”) poeman, harrizko aire eta ur hilobiak balira bezala deskribatu ere. Maiek mota guztietako eskaintzak -garai batean gizakienak ere- egiten dituzte bertan, eta, Carmen Rojas arkeologoaren hitzetan, zulook «hildakoen mundura atari edo leihoak dira», hau da, jainko, arbaso eta izaki mitikoak bizi diren lurraldera abiatzeko lekuak.

Pazen bisita eta ia mende batera, milaka turista hartzen dituzte Yucatan zulatzen duten ia 8.000 zenoteek. Lasaitasun bila eta inguruaren edertasunak, uren epeltasunak -24 gradu inguru- edo maien sinesmenek erakarrita datoz. Era berean, nekazaritzako eta abeltzaintzako hamaika ustiategi jarri dira abian, ibairik ezean lur azpiko ura baliatuz. Gainesplotazioak isurketak eragin ditu, ekosistema paregabeon bioaniztasuna eta ur baliabideak galaraziz.

Horren guziaren eraginez, jatorrizko herriek ondare natural eta kultural hau premiaz babes dezan eskatu diote Mexikoko Estatuari, baita eskubide subjektu gisa ere. Samantha Colli-Sulu Nazio Batuetako aholkulariaren arabera, «duten garrantzi zientifiko, kultural eta espiritualaz gain, familia askorentzat ekonomikoki irauteko aukera dira zenoteak». Masa turismoaren aurrean, anitz dira ekoturismoari esker, etxoletan ostatua edo tourrak eskainiz, sostengatzen diren kooperatiba maiak. Colli-Suluren ustez, «naturaren zaintzarekin eta honek sinbolizatzen duen guztiarekin lotura sakona duen antolaketa-modu bat dira». Izan ere, Pazek aipatu poeman nabarmendu bezala, «dirua amaigabea da eta basamortu amaigabeak sortzen ditu». Jonny SNOWDEN | Getty Images



THAILANDIA

Andamango itsasoan barrena







Thailandiako Andamango itsasoan dena da iradokitzailea. Bere uren kolore deigarri, anitz eta lasaiek, urpean igeri egitera edo nabigatzera gonbidatzen gaituzten bitartean, irletako biztanleen izaera alai, irribarretsu eta abegitsuak bertako gastronomia aberatsa dastatzeko edo patxadaz bizitzeko deia egiten digu. Lau urtez sarrera mugaturik egon ostean, hauxe da leku xarmagarri hau bisitatzeko unea.

Testua: **Ana VEGA** Argazkiak: **Gonzalo AZUMENDI**

Dagoeneko ahaztu ditugu denok mundu osoa erabat geldiarazi zenean sare sozialen bidez zabaldu ziren bideo biral haiek. Egun haietan abantaila bakarra sumatu ahal izan genuen, alegia, naturak eraberritzeko duen indarrak eragindako zirrara; baita norbera barne-barnetik eraberritzeko aukerak ere, nahiz eta hori agian zalantzarriagoa izan. Nolanahi ere, atsedenaldi horrek onura besterik ez dio ekarri Andamango itsasoari, Thailandiako leku berezi honi.

Inguruan dena da urdin, urdin argi eta turkesa kolore, berdetasun oparoko uharteen erdian. Kareharrizko mogoteek ozeanoaren monotonia urratzen dute. Izaera berezia ematen dio horrek, egundoko labirintoak sortzen baitira horrela. *Long tail* motako itsasontzietan edo *sampan* (txinatar ontzia, ihiz egina) zoragarri batean barneratu zaitezke bertan; edo zergatik ez, motordun txalupa azkar batekin sigi-saga ibili, film batekoa dirudien agertoki



Erreportajea zabaltzen, belaontzia Phangnga badian (Phuket) eta, hurrengo orrialdean, Maya badia (Phi Phi irlak). Lerroon gainean, Ton Sai hondartza (Phi Phi irlak). Aldamenean, berriz, surf taula Hat Kata hondartzan eta The Grotto jatetxea, Hat Phra Nangeko (Krabi) kobazulo batean.

honetan, harkaitz puska horiek saihestuz, 007 agenteak bezala, Koh Tapu uhartera iritsi arte. Monolito hori ospetsu egin zen mundu osoan 1974. urtean *The Man with the Golden Gun* filmean agertu ondoren. Gaur egun James Bonden uhartea ere deitzen diote; hainbestearainoko ospea eman zion. Horixe da, hain zuzen, Phang Nga badian egin daitezkeen txangoen artean arrakastatsuetan arrakastatsuena.

Harkaitz puska horien artean nabigatzen jarraitu dugu, zein baino zein ikusgarriagoa eta iradokitzaileagoa. Koh Panyira iritsi gara. Arrantzale herri musulman hori itsasoaren gainean hedatzen da, sorburu duen harrizko domo erraldoiaren oinetan dagoen lurzati txikia kolonizatu ondoren. Kale eta etxeen segidak plataforma itzel bat osatzen du uraren gainean, itsasoaren esanetara.



**Andamango
itsasoan,
Thailandiako
mendebaldeko
kostaldean, aurki
ditzakegu herrialde
honetako uharte
gehienak. Zerrenda
amaigabea bada
ere, Phuket, Krabi,
Koh Phi Phi eta
Khao Lak dira
ezagunenak.**

Ezaguna da bertako futbol zelai flotarriaren istorioa. Hain zuzen, uharte honetan bizimodua oso xumea da, distrakzio handirik gabea. Munduko futbol txapelketak irrika handiz ikusten zituzten bertako neska-mutilek, eta egunen batean Maradona bezalakoak izatearekin amets egiten hasi ziren. Hala ekion zioten uhartean aurkitzen zituzten ohol zati eta iltze galdu guztiak biltzeari, eta txabolatxo bat eraiki nahi duenaren gisa berean, futbol zelaia eraiki zuten uraren gainean, herriko helduak zur eta lur utzita. Baloiak uretara erortzen ziren eta askotan berreskuratzea nekeza izaten zenez, lan hori saihestearren esferikoa maisutasunez kontrolatzen ikasi zuten. Lehenengoz txapelketa batera aurkeztu zirenean, finalaren atarian geratu ziren. Harrezkero, jubenil mailako hainbat txapelketa irabazi dituzte. Hori ikusita, komunitate guztia buru-belarri aritu da beste futbol zelai flotarri bat eraikitzen. Mundu zabalean ez dago halako besterik.



Itsaso zirrargarri honetako uretan nabigatzen jarraitu aurretik, komeni zaigu abiapuntura itzultzea: Phuket uharte erraldoia. Zubi batek lotzen du penintsulara, baina, horrez gain, nazioarteko aireportu bat dauka, mugimendu handikoa. Phuket izen bereko hiriburutik gertu, era guztietako toki erakargarriak daude. Egonaldi ahaztezina egin nahian dabilenak desira izan dezakeen oro biltzen da haren inguruan, hala nola Kata, Karin edo Kamala hondartza tropikalak, zoragarriak, dela etzaulki bat alokatzeko, dela urpekaritza ikastaro bat edo stand-up paddle egiteko edo eguzkitan egoteko patxada ederrean, koko ura edanez, edo beste nolanahiko koktel bat hippy giro etxekoia duten txiringitoetan edo glamour eta abangoardia darrien besteetan. Uhartean barrena ezin konta ahala txango egin daitezke, bai ur-jauzi miragarrietara bai mendi muino garaienean kokatutako Buda erraldoia ezagutzera, handik Andamango itsasoa bistaratzeko.

Hiriburuko alde zaharrean Thalung kalea dago. XIX. mendeko eraikin eta saltoki txinatar-portugesak nabarmentzen dira bertan, eta muralgile eza-gunek berreskuratu dituzten horma zaharrak. Hori guztia aitzakiatzat hartu eta Unescoren gizateriaren ondare izendatzea proposatu zuten. Zur eta lur geratu ziren asko erabakiarekin, izendapena onartu baitzuten, baina zer izango eta, Unescoren helmuga gastronomiko gisa! Egia esan, Thailandiako sukaldaritza gustagarri eta harrigarria artearen mailara iristen da “Andamango perla” ezizenez ere ezagutzen den uharte honetan. Amu erakargarria benetan, eta ezin saihestuzkoa, gure jatetxe “izardunek” nahiz sukaldaritza tradizionalekoek bezainbesteko pasioarekin eta filosofia, ardura eta konpromiso berdinsuarekin sentitutakoa. Izan ere, thailandiarrei izugarri gustatzen zaie jatea, jaten disfrutatzea... Bidaia honetan, edozein bisita edo txango bezain atsegingarria izan da, edo gehiago. Afalostean, kopa hartzeko garaian, Patongen garito eta tabernek argitzen dute gaua, eskaintza eta tentazio sorta amaigabeaz gainezka, hemen deskribatu ere ezin dugun tamainan.

Phuketeko portutik abiatzen dira Phi Phi uharteetara doazen ontziak. Eden paradisuaren agerpena balira bezala azaleratzen dira ozeanoaren erdian... Bidaia-erantzak beti izan du erakarmen berezia hango bizimodu nareak, hango uren turkesa koloreak, baina 2000. urtean zein eta Leonardo DiCaprio lehorreratu zen bertan, hondartza perfektuaren bila. Hain zuzen, *The Beach* pelikula bertan filmatu zuten, Maya Beach hondartzan. Haren edertasunaren adierazle nahiko argigarria izan daiteke kultuzko film hori kokatzeko hareatza perfektutzat hautatu izana. Lehendik ere sobera ezaguna zen lekua, baina aurreikuspen guztiak gainditu zituen filmaren dei efektuak, eta jendea oldeka iritsi zen zinemak erakutsi zien paradisu hau bertatik bertara ezagutzera. Horiek horrela, hainbeste bisitarik eragindako kalteak konpondu eta parajea lehengoratzeko, Thailandiako Gobernuak bi urtez erabat ixtea erabaki zuen, eta berriro irekitzeko asmoa zuenean pandemia iritsi zen; hortaz, beste bi urte gehiago.

Lau urteko itxialdiaren ostean, hauxe da uharteak bisitatzeko unerik aproposena, eta gainera, beste abantaila bat ere badago: nazioarteko turistak kopurua nahiko eskasa da eta thailandiar bisitarik inguratuta egotean, gozamenak handiagoak da, hain dira alaiak, irribarretsuak, koloretsuak. Zalantzarik gabe, hauxe da Phi Phi uharteetara joateko unea, bertako hondartzetan igeri egitera,

urpekaritza egitera Pileh aintziran, non itsasoa fiordo batean bezala barnertzen den landaretzak estalitako labarretatik, edo mojito bat hartzera sandaliak eta pareoa soinean ditugula ilunabarra miresten dugun bitartean azken txalupa lehorreratzten den unean, hondartzan bertan afaritarako izango dugun arraina ekartzeko.

Phi Phi uharteetako portua Ton Say herrixkan dago. Dibertigarria, zaratsua, jatetxe eta dendak dituena, banketxeak... Bertatik, motordun ontziak ematen duen zerbitzuan ordubete eskaseko bidaia eginda, penintsulara itzuli gara, Krabi probintziara. Chicken uharteen aurrean –oilo xeble bat dirudielako dauka izen hori– Railay hondartza dago. Eskalatzaileen paradisa da; han ibiltzen dira kareharritzko hormetan gora eta behera tximinoekin lehian, ez katu oinik eta ez magnesiorik ez erabilita ere trebezian gailentzen zaizkien arren, zuhaitzetan gora igotzen behintzat. Giro motxileroa, zoragarria, dago, mundu guztia pozik, aldarte oneko, patuak zer dakarren ikusteko prest, bertakoek eguna joan eta eguna etorri muntatzen eta desmuntatzen dituzten postuetan etzan, jan edo edateko prest. Eskaintza sofistikatuagoa ere badago hareatzaren mugaraino hedatzen diren hoteletan. Nolanahi ere, paradisutik atera gabe, jakina. Bakarrik bidaiatzen dutenentzat, konektatzeko leku ezin hobea.

Baina zinemako agertokiez ari ginenez, iparralderantz jarraitu dugu itsasertzetik, eta Hotel Phulay Bay Ritz Carlton aurkitu dugu, *The Hangover. Part II* filmatu zen lekua. Une aproposa da tarifa oso onak lortzeko luxuzko ostatueta, leku gehiago daukatelako, oraindik ez baitute lortuko erabateko okupazioa. Oso gomendagarria da aukera hori ere, hotel hauek berez sekulako esperientzia baitira, ez dira soilik “eztei bidaietarako”. Hotel hau eta Thailandiako beste batzuek gosari epikoak eskaintzen dituzte, bai, baina are gehiago, badirudi azkenean maite zaituzten leku bat aurkitu duzula: gurina ematen dizute, zu zerbitzatzeko gogotsu daude, irribarretsu, jator... bene-benetako esperientzia, tentazioen zerrenda horretan.

Krabi hiria bisitatzea baino ez zaigu falta orain. Ontzian igo gara berriro, karramarro erraldoiaren eskulturatik Khao Khanabeko harkaitzen artean gurutzatzeko edo Ban Koh Klangeko artisau komunitatea bisitatzeko, non batik bat margotzen ikasiko dugun, edo artisautza lanak erosi edo plater tipiko eta zoragarri bat prestatu.

Janariaz ari garenez, gaua iritsita, Night Food Market da agian esperientziarik gomendagarriena Thailandiari agur esateko, makina bat postutxo paratzen baitira kalean *street food*-a eskaintzeko: kaleko janaria, zur eta lur uzten duen aniztasun, kolore eta usainarekin. Gustagarrien dirudiena aukeratu besterik ez da egin behar, eta plazako mahaietan eseri... Zerbitzua ezin bizkorragoa izan, eta hain direnez jaki gozoak zaila da behin eta berriro ez altxatzea espezialitate gehiago probatzeko, eta bitartean agertokian musikariak, rap kantariak nahiz dantza tradizionalak txandakatuz doaz, baita *kathoey* ikuskizuna ere, afari oparo honi ukitu beroa emateko.

Bihar etxera itzuliko gara; telegarraiatzeko makinarik ez da oraingoz asmatu tamalez, gustura asko itzuliko baikinake ostiralero afari hain xume eta aldi berean hain zoragarri hauetara.

GIDA PRAKTIKOA

ARGIBIDE GEHIAGO

Thailandiako turismo web gunea
www.turismotailandes.com

NOLA IRITSI

Hegazkinez, Madril edo Bartzelonatik, Bangkok edo Phuketera, Qatar Airways (qatarairways.com) eta Emirates (emirates.com) konpainiekin.

OSTATUAK

Sala Phuket Mai hotela, Khao Beachen (Phuket), Andaman itsasoaren aurrean, igerilekuz hornitutako etxetxoak dituena.

Hondartza eta igerilekuekin, berriz, Rosewood Phuket hotela, Phatong ondoan Phi Phi Don uhartean, Zeavola Resort & Spa aurkitzen ahal dugu, Laem Tong hondartzaren ondoan kokaturik, munduko hotel jasangarriarik onena izendatu dute.

Eta azkenik, Phulay Bay, Ritz-Carlton Reserve, Krabin, luxu hutsa Andaman itsasoaren ertzean.


JATETXEAK

Bib Gourmand sariarekin nabarmendu du Michelin gidak Phuketeko Baan Ar-Jor jatetxea. Irlan ere, Tu Kab Khao jatetxeak 2019tik janzten du Michelin izar bat kolkoan.

PERIGORD

Lau koloreko herrialdea

Testua eta argazkiak: **Xabier BAÑUELOS**







Beltza, berdea, zuria eta purpura; lau kolore horiek ditu Perigordek, Frantzia historikoko eskualdeak, Cyrano de Bergerac literarioaren eta munduko onddo famatuaren sehaskak. «Noir», «vert», «blanc» eta «pourpre», arrasto neolitikoz, Erdi Aroko gazteluez, zalduneria-nobeletako hiriez eta betierekotasuna ureztatzen sigi-sagan dabiltzan ibaiez jositako lau kolore.



Ridley Scott-en azalean izan banintz, nik ere Perigord hautatuko nukeen azken lana filmatzeko. Ikusi ez dutenentzat, “The Last Duel” (Azken due-lua) pelikula, XIV. mendeko Normandian girotuta, bortxaketa baten eta ondorengo ohoreagatiko borrokaren inguruan dihardu. Emakume baten benetako istorioa da, Marguerite de Thibouville-rena. Bere garaiko gizartea eskandalizatu zuen, bere erasotzailea salatu eta justizia eskatzera ausartu zela-eta.

Salaketa horrek eragin zuen senarraren eta bortxatzailearen arteko borroka, horretara behartzen baitzuen garaiko kultura zeharo patriarkalak. Filmak Irlandara eta Frantziako beste eskualde batzuetara ere eramaten gaitu, baina une garrantzitsuenak Dordoina ibaiaren ibilbide-erdiko para-jeetan filmatuta daude. Bere ertzen iparraldera eta hegoaldera, Erdi Aroa konjuru batetik aterata bezala dakusagu lur hauetan, denboraren joanak eragiten ez dion argazki batean erretratatuta bezala.

Sarrerako argazkian, Saint Dominique Monpazier elizako klaustroa. Lerroon gainean, Beynac-et-Cezenac-eko Erdi Aroko etxea eta, gazteluko almenetatik, Biron herria. Hurrengo orrialdeetan, ordenan, Cadouingo txoko bat; Castelnau-la-Chapelle eta Sanit-Léon-sur-Vézère gazteluak eta Beynac-et-Cezenac-eko kale bat. Issigeac-eko plaza, Boschaud abadiako eskailerak eta Monpazier-eko kalezuloa.



Filmean agertzen dira Monpazier-eko Place des Cornières ederreko arkupe gotikoak, iraganean ainguratutako bastida bat, zeinaren argi eta ilunak Erdi Aroko Parisen transformatu ziren. Sainte-Mondaneko Château de Fénelon-eko dorre zilindrikoak ere agertzen dira. Bertako lorategietan, elur artifizialez estalita ageri dira zutoihal luzeak, kanpaina-karpak inguratuz, ustezko Bellême-ko gotorlekuan.

Eta, azkenik, berriro Château de Beynac miragarriak egin digu harrera, muino harkaiztsu batean txertatuta, azpian Beynac-et-Cazenac ezohiko baserria dagoela. Bere almenek bista paregabea dute, ibaiaren ispilu ilunaren eta berde koloreko baso-kaleidoskopioaren gainean. Ez gara Ben Affleck-ekin gurutzatu, ezta Matt Damon, Jodie Comer eta Adam Driverrekin, baina horien presentziak ez du garrantzirik elezaharretako paisaia honen edertasun soil eta antzinakoaren ondoan.

Perigord Okzitaniako Guienako antzinako lurralde historikoa da, Akitania Berriko erdigunean egungo Dordoinako departamenduan dagoena. Bada herrialdeko eskualde ederrena dela dioenik. Hori sinesteko arrazoiak badiudan arren, Frantzia osoa ezagutu gabe ezin dut halakorik baieztatu.



Baina hanka sartzeko beldurrik gabe esan dezakegu Perigordeko zeruaren azpian konjuratu direla iragana eta ingurunea ikuskizun eder hau eskaintzeko, hots, arima, artea eta natura hain era harmoniatsuan batzen diren konposizio gaindiezin hau eskaintzeko.

Perigordera iristea Erdi Aroan sartzea da, bai, baina baita herri arkitektura eder batean murgiltzea ere; kontakizunetan bilduriko herri oso zainduak ditu, eta arroila, baso, muino, mahasti eta erreka sigi-sagatsuak. Hain da handia bere xarma, ezen ez baitakigu errealitatea bizitzen ari garen edo elezahar batean murgildurik gauden.

BERDETIK ZURIRA Tradizionalki bi zatitan bereizi izan da Perigord: batetik, Goi Perigord iparraldean, Périgueux hiriburu duela, eta Perigord Cada hegoaldean, Sarlat-la Caneda izanik hiri garrantzitsuena. Aitzitik, egungo banaketa lau koloreen arabera da: berdea, zuria, purpura eta beltza.

Egia esan, banaketa moderno eta ofizioso hori paisaia motekin lotua eta arrazoi historiko edo administratiboek baino interes turistikoek bultza-



turikoa da. Baina hori gailendu da eta gida gehienetan lau koloreko paleta hori agertzen da.

Iparraldean hasiko gara, Dronne ibaiaren lurretan, zeinak Perigord Berdea osorik zeharkatzen duen. Zelai eta harizti zabaleko lurralde heze honek eskuzabaltasunez luzitzen ditu Atenearen begi glaukoen, Zirtzeren begi aztien edo Beatriz, Melibea edo Dulcinearen beatifikoen ñabardurak.

Nontron-en, bertako hiriburu txikian, eskala egingo dugu Saint-Jean-de-Côle-ra hurbiltzeko. Berau da, bere zubi erromanikoarekin, bere bi gazteluekin eta donejakue bidearekin, “Les plus beaux villages de France” –Frantziako herririk politenak– zigilupeko Perigordeko udalerri multzoko lehena.

Gazteluak hizpide, badira beste hiru galdu ezin ditugunak, Laxion-ekoa, Richemont-ekoa eta, batez ere, Puyguilhem-ekoa, Villars-en, zeinaren silueta erromantikoak kontrastea egiten duen Boschaud-eko abade-etxe hondar hurbilen dramatismoarekin. Ibaian behera, urek Brantôme-ko irla-udalerrira eta Bourdeilles-en antzinako estanpa datorera garamatzate.

Erdigunera iritsita, formazio karstikoko kare-harkaiztiek tindatzen dute Perigord Zuriko egunsentia. Savignac-les-Églises-etik harago batzen da L’Isle ibaia Auvézère-rekin. Hor handitzen da bere emaria eta bere ur-laster, urmael, uhartetxo eta bihurguneek janzten dute intxaustiz, errotaz, presaz eta gabarra zaharrei buruzko istorioz beteriko paisaia.

Bere bidean, Périgueux galoerromatarra zeharkatzen du, Saint-Front katedralaren kupula orientalizanteen azpitik. Hain zuzen, tenplu horretan inspiratu zen Paul Abadie Montmartreko Sacré-Coeur sortzeko.

PURPURATIK BELTZERA Purpura da udazkeneko mahastien eta hegoaldean ahosabaiak bustitzen dituen ardoaren kolorea; hots, Bergerac-en, Hercule-Savinien Cyrano literato sudurluze entzutetsuenaren kontakizunak gogoratzean, letren zapoarekin nahasten diren ahosabaiak. Parisekoa izan arren, Rostand-en lumarekin eman zion ospe unibertsala hiriari.

Hiriburuaren inguruko ibilaldia egingo dugu: Tiregand-eko gaztelua, Monbazillac-ekoa (urre-koloreko ardo botrifikatu bikaina dago bertan, Bri-droire-koa (bizkar okertuko dragoi gisara etzana) eta bi herri, Eymet, ojiba-arkupedun plazarekin, eta Issigeac, fatxada gurutzatukoa.

Ekialderantz jarraituko dugu, eta Beaumonteko St-Laurent eliza-gotorlekua ikusiko dugu, Montferrand-etik eta San Kristobal eliza erromanikoko pintura zoragarrietatik ez oso urrun dagoena.

Baina oraindik zain ditugu aipatu dugun Monpazier eta Birongo gaztelu dotore eta ikusgarria; eta Cadouin-eko abadía, mendei eta destinoei desobedituz bizirik iraun duena; eta Limeuil, Dordoina eta Vézère ibaiak elkartzen diren puntuan, muino baten gainean hasten den herri ederra, Kristalezko Katedrala esaten dioten Gouffre de Proumeyssac leizetik kilometro gutxira dagoena.

Eta azkenean Perigordetan ezagunenera iritsiko gara, Noir-era, beltzera, bere fruitu preziatuenaren koloreak, boilurrak, eta ekialdeko baso trinkoen itzalek tindatua. Hiriburua, Sarlat-la-Canéda eder eta gastronomikoa, xarma zaharkitu bat duten paisaiez eta herriz betetako lurralde batean biratzeko aukera ematen digun espiral baten erdian dago.

Hain zuzen ere, Paleolitora bidaia egin dugu Vzère bailaran, non gure europar arbasorik zaharrenek Lascaux eta beste hainbat leize apaindu zituzten eta, besteak beste, La Roque Saint-Christoph aterpean, La Madeleine babeslekuan eta Rouffignac haitzuloan bizi izan ziren.

Presarik gabe bidaiatuz gero, ikaragarria da bertako magia eta edertasuna. Zeru gainera altxatutako defentsa-eraikin ugari daude, hala nola Domme eta Belvès, eta horiekin batera Eyrignac eta Marqueyssac-en lorategi irudimentsuen arte toparioa ikusiko dugu, non landare-eskulturak angelu eta kurbak konbinatzen dituzten forma apetatsuekin jolasten diren.

Hainbat gaztelu ezezagunek, esaterako Commarque-k, destainaz begiratzenean jauregi-*châteaux* ederrei, hala nola Milandes delakoari, zeina Joséphine Baker izeneko “ebanozko Venus” haren bizilekua izan zen. Errezelo gutxiagorekin begiratzenean diete beren garai bertsukoak diren gotorlekuei, hala nola ondoko Laussel gazteluari, aipaturiko Fenelon eta Beynac-i, Puy-martin-eko gaztelu tenteari, Fayrac-eko gaztelu irmoari eta Dordoina ibaiaren gaineko begiraleku pribilegiatua den Montfort-eko gazteluari.

Eta, jakina, herriak, hondarrezko erlojurik ere asmatu ez balitz bezala kontserbatuta daudenak. Baserria edo gaztelua? Ez dakigu zer den Castelnaud-la-Chapelle, ezta axola ere, harriaren, arroka eta arrano habiaren sinbiosi perfektua da, trobadorearen bertsoa du eta botere feudalaren ezpata. Talaia horren harresietatik ikus dezakegu zeruan ebakia Beynac-et-Cazenac-en irudi lerdana.

Eta ibaian gora eginda, instant batera, meandro batean uzkuertuta eta harritzko horma batek babestuta, La Roque Gageac Dordoinaren iparraldeko ertzean zehar luzatzen da, goranzko kalek labirinto sinesgaitz batean, La Malartrie-ko *château*aren eta Jardin Exotique-en artean.

Leku berezia da Saint-Amand-de-Coly herrixka. Haran baten barrenean ezkutatuta, Erdi Aroko pintzelkadaz zipritindutako baserri soila XII. mendeko abade-eliza harrigarriak edertzen du. Bere kanpandorre handi eta ikusgarriaren 30 metroak eta nabearen pisua nagusi agertzen dira espero gabeko bolumenetako teilatu eta basoen gainean. Eta are harrigarriagoa da Saint-Léon-sur-Vézère, bere Eiffel estiloko zubiarekin, *couredoux* edo kalekkek, La Salle gaztelu eta bere *donjon*-arekin, eta Belcayreko *château*arekin.

Beltza, purpura, zuria eta berdea, lau kolore bost ibairentzat, eta bost ibai hiru izeneko lurralde honentzat: Dordoina, Perigord eta Guiena. Okzitania edo oc-eko hizkuntzaren bihotzean taupadaka, dudarik gabe, Galia zaharreko inguru ederrenetako bat da.

GIDA PRAKTIKOA

NOLA JOAN

Onena autoz joatea da. Bertara iritsitakoan, autoa eta bizikleta erabil ditzakegu.

NOIZ JOAN

Urteko edozein sasotian. Paisaia ederrenak udaberri eta udazkenean ikus daitezke. Neguan, berriz, oso jende gutxi ibiltzen da, lasai ibili nahi duenarentzat.

ZENBAT EGUN

Lau koloreetan barneratzea erabakitzen badugu, gutxienez hamar egun.

NON JAN

Gastronomia bikaina da eta hiru produktu izarak dastatu beharra dago: antzara, trufa eta intxaurrak. Toki bat hautatzekotan, Sarlat da aukera gehien duen hiria.

JARDUERAK

Xendazaletasuna, bizikleta, zaldia, kayaka, globoa eta parapentea dira ohikoenak.

LES PLUS BEAUX VILLAGES

DE FRANCE

Eskualdeak hamar udalerri ditu zigilu horren pean, horietatik zazpi Perigord Beltzean.

KOKS

Bi izarreko jatetxea, iceberg artean



Testua eta argazkiak: **Odd ANDERSEN** | AFP

Zirkulu polar artikotik harago, iparraldeko 69. paraleloan, bi Michelin izarren jabe den Poul Andrias Ziska, Faroe uharteetako sukaldaria, KOKS jatetxe berezi eta txikiaren arduraduna da 2022ko ekainaz geroztik.





KOKS BI IZARREKO JATETXEA, ICEBERG ARTEAN





Groenlandiako ostatu saridun bakarra eta frantziar gida gastronomiko ospetsuan agertzen direnen artean munduan iparraldekoena da KOKS. Ilimanaq-en dago, iceberg artean ezkutatutako herrixka batean, eta itsasontzi edo helikoptero bidez bakarrik irits daiteke bertara.

Izar preziatuak kolkoan hartuta, Faroe uharteetatik lekualdatutako jatetxea itsasoaren aitzin-aitzinean egur beltzez eraikitako etxetxo estu batean dago, Groenlandiako zaharrenetako batean. Hogei bat mahaikide bakarrik hartzen dituzte zerbitzu bakoitzean, eta horrek eskaintzen duen esperientziaren aparteko izaera areagotu besterik ez du egiten.

Lurralde latz honetan, non apenas aurki daitekeen nekazaritza arrastorik –hegoaldean izan ezik, bertatik 1.000 bat kilometrorra–, Poul Andrias Ziska sukaldariak bertan ekoitzitako produktuekin esperimentatzen du, balearekin ere bai, eta algekin.

«Ahalik eta gehien saiatzeko naiz groenlandiar produktuetan arreta jartzen, elurretako karramarroekin prestatutako fle-

tanetik hasi, musketatutako behi-okelarekin jarraitu, eta elurretako oilarrera (*lagopodo* edo *ptarmigana*) iristeraino. Inguruetakoa belarrak eta baiak ere erabiltzen ditut», ziurtatu du Ziskak.

Bisitariak baleak bertatik bertara ikus ditzakete lekutik bertatik, pontoitik alegia, eta jatetxeko kideek paneka atlantikoak (*capelan*), bertako ur hotzetako arrain txikiak, arrantzatu ditzakete.

Duela hilabete batzuk arte, sukaldari gazteak Faroe uharteetako bere etxetik gidatzen zuen KOKS, eta 2017an lortu zuen bere lehen izarra, 2019an bigarrena, eta munduan isolatuen –artxipelagoko txoko galdu batean– dagoen Michelin izardun jatetxe titulua irabazi zuen geroxeago.

Hala ere, sorterrira itzuli nahi du Ziskak, eta bertan bizitzen jarraitu baina, azaldu duenez, Europa iparraldeko lurralde batean, «Islandia, Groenlandia edo baita Svalbard-en ere», lan egin nahi izan du aurretik. Hala, azkenean, leku hau aukeratu zuen, Ilulissat-etik –Groenlandiako hirugarren hiria eta bere glaziar handiagatik ezaguna dena– belaontzia hartuta ordubetera dagoena.



BERTAN EKOITZITA «Gure betiko jatetxera aldatu aurretik, guztiz ezberdina eta dibertigarriagoa den zerbait egitea pentsatu genuen», azaldu dio sukaldariak AFPri. Hogei plater ezberdinez osatutako menu luzeak gozatu ederra emango digu 2.100 koroaren truke (280 euro inguru, edariak aparte).

Besteak beste, haragi zuria brotxeta batean jarritz eta txanpiñoi eta elur-orein koipearekin lagunduta, eper zuri (*ptarmigan*) hegal handi bat prestatzen du chef gazteak. Era berean, lapekin (molusku bat) egindako krema gozo bat kozinatzen du, zuzenean bere oskolean zerbitzatzen duena.

«Menua bikaina da eta Iparralde Handian zehar bidaiarazten zaitu», dio Devid Gualandrisek, pozez zorutzen dagoen bisitariak. «Arrain eta itsaski fresko-freskoak, balea-mokaduak, ardo gozoak eta postre landuak. Dena zaporez gainezka», gehitu du.

Ustekabeko erreferentzia puntua da gourmet jatetxe baten-tzat Ilimanaq –groenlandieraz “itxaropenen lekua” esan nahi du–; 50 bizilagun dituen komunitate batek osatzen du, zuzeneko etxe bitxietan bizi dena, mendi-ibilbideen eta luxuzko

hotel baten ondoan. Ezinbesteko helmuga da aukera berrien bila dabiltzan turista dirudunentzat.

Ziskaren esanetan, Groenlandiako bezeroak desberdinak dira. «Jende askorentzat lehentasuna lekua bera bisitatzea da eta, bigarrenik, jatetxera sartzeta», esan du. «Faroe uharteetan, pertsona gehienak zuzenean etortzen ziren gurera bazkaltzera, eta gero, jakina, bisita egiten zuten», esplikatu du 30 urteko gazteak.

Paisaia malkartsuek liluratutako abenturazaleez gain bestelakoak erakartzeko ahaleginean, Groenlandiako Turismo Bulegoak gourmet bidaiarien aldeko apustua egin du. «Goi mailako gastronomia, Ipar Atlantikoko sukaldaritzari datzekion jasangarritasuna eta naturaren eta Disko badiako berezko baliabideak; hiru ezaugarri horiek batuta lortzen dugu turista mota jakin batengana iristea», zehaztu du Visit Greenland-eko zuzendari Hjortur Smarasonek.

Luzaroan ezezaguna izan den helmuga honek, Groenlandiak, 100.000 turista baino gehiago hartu zituen 2019an, bere biztanleriaren ia bikoitza, covid pandemiak gorakada izugarri hura eten aurretik.



SIGMUND FREUD PROMENADE


Neolitikotik ibiltari

Testua eta argazkiak: **Juanma COSTOYA**

Hego Tirol (Italia) bete-betean, Oberbozen eta Klobenstein herrien artean (italieraz, Soprabolzano eta Collalbo), hedatzen da Sigmund Freud Promenade izeneko pasealekua. Konifero basoen eta mendi larreen artean doa bidea eta zerumugan marraztutako Dolomiten harrizko orratz ikusgarriaz gozatzeko aukera ematen du.

T ioldar eraikin tradizionaletatik hasi eta *art déco* eta austriar barrokorraino doazen tipula-kupuladun elizak eta estilo-nahasketa batean eraikitako jauregiak biltzen ditu Sigmund Freud Promenade ibilbidea igarotzen den paisaia alpetar gizatiartuak. Bere dizipulu izandako Carl Gustav Jung-en aholkuei jarraituz iritsi zen bertara psikoanalisiaren aita. 1911ko otsaileko gutun batean, Vienan zeraman jarduera frenetikoagatik gainezka eginda, aholkua eskatu zion Freudek; atsedean hartzeko eta bakarrik egoteko baso bat gertu zuen ingurune bat behar zuen. Hilabete batzuk geroago, berriro idatzi zion; oraingoan, aldiz, bihotzez eta argiki eskerrak ematen zizkion emandako gomendioagatik. «Renon zoragarriki eder eta atsegina da», izan zen Freuden epaia.

Psikoanalistak lehen bisita 1911ko apirilean egin zuen eta astebete eman zuen bertan. Egun horietan, Bolzanotik Renoneko goi-ordokiraino joateko (bertatik igarotzen da gaur egun Freuden omenezko ibilbidea) denbora izan zuen, eta paisaiaren lasaitasun eta edertasunak liluratuta utzi zuten.



Hainbeste gustatu zitzaion tokia, ezen urte hartan bertan Alemania hegoaldeko Karlsbadeko bainuetxe-estazio elitista utzi eta familiarekin batera Klobensteinera joan baitzen bizitzera. Zilarrezko ezteiak ospatu zituen han eta inguruetan egindako pasealdiak lan-errutinarekin tartekatzen hasi zen.

Guganaino iritsi dira bi jarduera horien adibideak. Bere lanarekin zerikusia zutenen artean, adierazgarriena “Totem eta tabu” obra izan zen. Klobensteingo Bemelmans Post hoteleko aretoetan hasi zuen hura. Eta ibilaldiak egiteko zuen zaletasunetik Freud Promenade izeneko ibilbidea geratu zaigu, 2006ko martxoaren 6an inauguratu zutena, haren jaiotzaren 150. urteurrena ospatzen zenean. Ibilbidea ordu eta erdian egiten da eta sei kilometro eskas ditu. Diseinu biziki erakargarria duten zurezko 13 eserlekuk zedarritzen dute bidea, Dolomitetara begira denak. Bizkarralde guztien izkina batean, metalezko plaketan, haren obrako aforismoak agertzen dira.

GAILURRERANTZ Freud Promenade, berez, Bolzano (107.000 biztanle) eta Rittner Horn mendia (2.260 m) lotzen dituen ibilbide zabalago baten barnean kokatzen da. Hego Tiroleko hiriburuaren eta tontorraren artean



dagoen bi mila metroko desnibela mendi ibilbide ezaguna da, asteburuetan jendez gainezka egoten dena.

Normalean, mendizale gehienek Bolzanotik ateratzen den funikularrari esker gainditzen dute lehen mila metroko desnibela. Minutu gutxian igo-tzen ditu Oberbozenera, 1.220 metrora, terrazetan landatutako mahastiak eta, beheraxeago, sagarrondoak atzean utzita. Oberbozenen gainetik ez dago mahastirik. Hemen, mahastien ordezt, astigararak, altzifreak, haginak, pinuak eta lizarrak eta mendiko larre eta baserriak tartekatzen dituzten belardi eta basoak daude. Bidearen eskuinaldean geratzen da Klobenstein/Collalbo herria, Freud Promenaderen hasiera eta helmuga, eta azkar hartzen du altuera lurak, Pemmerneko aterpetxerantz (1.538 m). Goi-mendiko paisaia hasten da hemen, izeiz ziprztindutako hegal belartsu eta harritsuekin.

Handik hurbil dagoen Gissmann/Madonnina herrixkan (1.577 m) amaitzen den mendiko errepide batetik ere irits daiteke aterpetxera. Hemen kokatzen da gailurrerantz abiatzeko azken laguntza mekanikoa. Teleaulkiaren kabinek mendi-hegal aldapatsuak gainditzen dituzte, jatetxe-taberna bat

**Neolitoko
“Izotzetako
gizona”-rengandik
XX. mendeko
psikoanalisiaren
aitarenganaino,
zentzumen guziak
asebete dizkigute
lurralde honetako
intsusa baiek,
masusta gorriek
eta abrikotek,
Dolomiten marko
paregabeak
lagunduta.**





30-31. orrialdeetan, Freud Promenadeko lehen eserlekua. Erdian, Stella Renonera bidean, belar-meta bat. Eskuinean, Freud eta haren alaba baten argazkia tamaina errealean, Klobenstein ondoan. Hurrengo bi orrialdeetan, Nero lakuaren gailurra eta Dolomiten ikuspegi panoramikoa. Santa Magdalena eta terrazadun mahastiak. Tiroleko jatetxeak eta Bozen (merkatua eta kaleak). Hemen eskuinean, aterpea Rittner Horn-en, Kematen eta Ötziren manikia Bolzanoko museoa.



duen ordoki txiki batera iritsi arte. Eski-denboraldian, Corno del Renon eski-estazioaren mugak markatzen ditu. Oso gutxi dira honaino zangoen laguntzaz soilik iristen direnak.

Gehienek aterpetxeko aparkaleku zabalean laga dute autoa, teleaulkira igo aurretik. Abantaila mekanikoak probestuz, ibilbidea oinez egin dutenak ere ez dira falta, guztira hiru bat orduko txangoa eginez. Goi-lautadaren gainean bi aukera daude gailurrera iristeko. Lehenengoa ia zuzen doana da, bide zorrotz batetik, Rittner Horn mendiaren gailurreraino doan azken berrehun metroko desnibela gainditzen duena.

Beste aukera, oso ezaguna dena bestetik, mendiaren hegala inguratzen duena da, tontorrerako bidean jarri aurretik. Eguna oskarbi badago, eskaintzen dituen ikuspegiak zoragarriak dira. Ilunabarrean eguzkiak arrosaz tindatzen ditu Dolomitetako pareta bertikalak eta gailurrik garaienak: 2.414 metroko Santnerspitze eta 2.564 metroko Schlern. Urrutixago, Marmolada (3.342 m) eta Langkofel (3.181 m) ikus daitezke ere.

IZOTZETAKO GIZONA Rittner Horn mendiaren gailurrean (2.260 m) jattetxe ospetsu bat dago, jaegunetan eta eski-denboraldian zehar irekita dagoena. Egunak laguntzen badu, jende ugari biltzen da kanpoaldean, arropa egokiak jantzita eta begiak eguzkitako betaurrekoek babestuta, eta indarrak hartzen ditu garagardotegi-menuko txerriki-ukondoak, saltxitxaz, *choucroutez* eta patata-purez bapo jarrita.

Eski-denboraldi betean Rittner Horn mendiaren tontorreraino, Dolomitetako balkoi ikaragarriaraino, heltzen diren mendizale eta eskiatzaile talde handiek –aurretik Freud Promenadetik pasatuz betiere–, Tirolen ohikoa den eta K.a. 3255. urtetik gaurdaino dokumentatu daitekeen ibilaldi tradizio luzeari jarraitzen diote. Italiako Tirol aldean, 1991ko irailean, mendizale bikote batek Europako momiarik zaharrena izan zenaren arrastoak aurkitu zituen. Ötzi, “Izotzetako gizona”, izena jarri zioten, Ötz haran alpetarrari erreferentzia eginez. Han aurkitu baitzuten 3.200 metroko altueran.

Austriako Innsbruck Unibertsitateak –Ipar Tiroleko hiriburua da Innsbruck– izan zuen zazpi urtez haren azterketaren ardura. Beste bi pertsonarekin izandako liskar baten ondorioz hil zela frogatu zuten zientzialariek. Halaber, ikerketaren arabera, 46 urte zituen, 1,60 metroko altuera eta 50 kilo pisua. Laktosarekiko intolerantzia zuen, begi marroiak eta O positibo odolaldeak. Artritisa, txantxarra, hesteetako parasitoak eta Lyme gaixotasuna (karparrak kutsatua) zituen. Bera baino handiagoa zen arkua zeraman, eta dozena erdi gezi, sukaldeko aizto bat, aizkora bat eta sua pizteko igeltsu bat.

Horretaz gain, jantzietan agerturiko polen eta hauts partikulen analisiak eta hortzen esmaltearen osaketak egiaztatu zuten gaur egungo Bolzanotik gertu dagoen herrixka batetik zetorrela eta bere ohiko bizilekua herritik 150 kilometro iparraldera zegoela. Ötzi zazpi urtez Tirolgo alde austriarrean ikertu ostean eta milaka urte lehenago jaio zen lurraldera itzuli zutenean, Bolzano Neolitoko herrixka izatetik Hego Tiroleko hiriburua izatera pasatu zen.

GIDA PRAKTIKOA

NOLA JOAN

Aukerarik merkeena Veneziara edo Milanera prezio txikiko hegaldi batekin bidaiatzea da. Eta, handik, trenetaz erraz irits daiteke Bolzanoraino. Beste aukera bat, garestiagoa dena, Innsbruckerako (Austria) hegaldia hartzea eta Alpeak trenetaz zeharkatzea da.

NOIZ JOAN

Eskiak markatzen du Rittner Horneko goi denboraldia. Udazkenaren hasiera eta udaberriaren azken egunak dira ibiltzeko urtarorik onenak.

OSTATUA

Bolzanok eskaintza zabala du: aterpetxeak –gaueko 90 euroan, sasoz kanpo– eta luxuzko hotelak.



WASHINGTON

Udazken koloreak

Testua: **Urtzi URRUTIKOETXEA** Argazkiak: **U.U eta Getty**







Ameriketako Estatu Batuetako hiriburua bere museo eta monumentu ikusgarriengatik da ezaguna (eta horietako gehienak bisitatzea dohainik delako). Horiek garrantzitsuak izanda ere, hiriak baditu ikustea merezi duten beste auzune eta parke interesgarri ugari; gutxi espero dute, lehen aldiz etortzean, horrenbeste berdegune eta baso dituen hiria izatea. Udako bero hezea amaitzen denean, udazkenean, gozatuko dugu gehien Washingtonez.

Etxe Zuria, Kapitoloia, George Washingtonen obeliskoa eta Lincoln monumentua, National Mall-a eta Smithsonian Institution-eko museo interesgarri eta doakoak... Washingtonek metro gutxiko eremuan daukan eskaintza izugarria da. Potomac ibaiaren iparraldera, AEBko hiriburuak bere handitasuna maiestatikoki ageri du, txoko bakoitzean herrialdearen historiako pasarte esanguratsuak bilduz: ez dira gutxi beteteranoen omenezko oroitarri militaristak, baina beste askok eskubide zibilen aldeko eta arrazismoaren aurkako borrokak dituzte gogoan, Martin Luther Kingek “I have a dream” (Amets bat daukat) esan zuen gunen enblematikoa, esaterako.

Udazkeneko sasoi freskoagoan eta, batez ere, udaberriko gerezien loral-dian etorri ohi da hirira bisitari gehien. Gainerako urtaroak ere ez dira kalterako; neguko elurteren batek bete-betean harrapatuz gero, adibidez, Smithsonianen doako museoetan orduak eta egunak eman litezke, AEBko historia ezagutuz, ondare afro-amerikarraren edo indigenen arrangura gu-



**AEBko hiriburuko
eta aldirietako
auzuneak bertako
parke eta
naturagune
ugarien koloreekin
norgehiagoka
bizian agertzen
dira udazkenean**

neak bisitatuz, edo munduko artelanik garrantzitsuenak dituzten beste erakustokietan. Hiriko zooa ere, txikienekin doazenentzat kasu, dohainik da, Smithsonian Institution-en gainerako guneak bezalaxe. Museoetatik aparte dago, ordea, hiriaren mendebaldean, Washingtonen birikaren erdi-erdian, Rock Creek parkearen txoko batean (bertaraino iristen da metroa, edozelan ere).

BASOA HIRIAREN ERDIAN New Yorkeko Central Park erraldoi baina ordenatu eta laua irudikatuz datorrenak sekulako ustekabea hartu ohi du Rock Creek-ekin: parke izena dauka eta hala da, noski, baina baso erraldoi eta menditsua da. Oreinak, azeriak, kastoreak eta mota guztietako hegaztiak ikusi ditugu Rock Creek-eko paseoetan. Izen bereko ibaia doa parkearen erdi-erditik, Marylandeko lurraldeetatik sartu eta hiria ipar-hego zeharkatuz Potomaceraino. Ibaiaren bi aldeetan, ehunka bide asfaltatu, lurrezko bidexka eta bestelako bidezidorrak daude, eta ia une oro –baina as-teburuetan bereziki– aurki daiteke jendea bizikletan, oinez, patinetan edo egun-pasa piknika egiten. Hiriko lekurik atseginenetakoa da, zalantzarik gabe, eta udazkeneko koloreek hartzen dutenean benetan merezi du or-belen arteko bidean txangoa egitea.

Rock Creeken mendebaldera, zoologikoaren paretik doan Connecticut Avenue-tik joanda, hiriko auzune aberatsenetakoak daude, Marylandeko Bet-



hesdaraino. Bertako jauregi eta etxalde dotoreen ibilbide interesgarria egin daiteke; udazkenean, gainera, Halloweeneko dekorazioek oso ukitu berezia ematen diete. Parkean behera joan ahala, basoa estutu egiten da, zooaren ingururaino; iparrerantz, berriz, hainbat kilometro zabal da. Hala, parkearen erdian planetarioa dago; hainbat ibilbide abiatzen dira bertatik, Boulder Bridge harrizko zubi ederrerraino, esaterako. Bidean beherantz eginda, ibaiaren ertzetik Peirce Mill errotraraino iritsiko gara; asteburuetan doako bisitak egin ohi dituzte.

Bide osoan zehar, etxalde ederren bat edo beste ageri da basoaren alderen batean: asko enbaxadak edo enbaxadoreen etxeak dira. Embassy Row auzunean zeharreko txangoa, bestalde, hirira etortzen diren askok maite dute, munduko bazter guztietako ordezkaritzak bisita daitezke eta. Hegoa-frikakoan, adibidez, Nelson Mandelaren estatua dago atarian.

Parkearen ekialdetik, 16. etorbidea zuzen-zuzenean doa Marylanderaino Etxe Zuritik abiatuta; bidean gurutzatzen dituen kaleak alfabetikoki ordenatuta daude, Dupont Circle, Logan Circle edo Adams Morgan moduko auzune bizietatik igaro ahala. K kalea lobbyen eremua izan zen behinola. Alfabetoan aurrera egin eta iparrerantz jota, U kalea da Washingtonen nortasun berezienetakoa gordetzen duen auzuneetako bat. “Broadway beltza” deitu zioten duela mende bat, gerra arteko urteetan; Duke Ellingtonen

Erreportajearen izenburupean, kapitolioa, hiriko eta AEBeko gunerik esanguratsuenetakoa, udazken koloretan. 38. orrian, National Mall, AEBeko gunerik bisitatuenetakoa, George Washingtonen omenezko obeliskoa erdian duela. Lerroon gainean, Rock Creek Park, hiria ipar-hego gurutzatzen duena, eta Great Falls ur-jauziak, Virginia eta Marylandeko mugan Potomac ibaian. Hurrengo orrian, Washingtoneko auzune zenbait: Georgetown dotorea eta Capitol Hill, jendez leporaino.



jazza entzuteko lekua zen, eta oraindik ere ia ezinbestean etorri beharreko lekua da, Ben's Chili Bowl-en mokadu bat hartzera kasu, Barack Obamak egin zuen gisan. Ingurune osoan, muralak, jan-edateko lekuak eta giro atsegina aurkituko dugu, Busboys and Poets moduko taberna eta liburutegietan. 16.era itzuli eta mendebalderantz eginda, Adams Morgan eta Kaloramatik West End dator, behinola hiriaren mendebaldeko amaiera zelako, gaur egun leku dotore eta garestia izanda ere.

GEORGETOWN ZAHARRA Rock Creeken inguruko parkea txikiagoa da hemen, baina bistan geratzen da beste aldean Washingtonetik oso apartean dirudien herri batera sartzen zarela: Georgetown hiria sortu zen lekua da. Edo, hobeto esanda, AEBko hiriburua egiteko hiri bat diseinatu aurretik egon zen portu-hiria da Georgetown. Potomac parean daukan parkea oso atsegina da, eta auzunea zeharkatzen duen K kalearen inguruan ia beti dabil jendea, erosketetan edo taberna edo jatetxeren batean. Baina benetakoa giroa, udazkeneko egunetan paseatzeko batez ere, gorago datozen kaletan dago. Galtzada-harrizkoak dira horietako asko, eta inguruko etxeak zein baino zein ederragoak, kalabazak eta udagoieneko jantziak hartzen dituzten sasoiotan bereziki.

Potomac ibaiak bereizten du Washington Virginian dagoen Arlington hiririk, izen bereko hilerriaren parean. Georgetowndik Arlingtonera doan zubitik, baina, Roosevelt uhartera igaro daiteke. Rock Creeken antzera, baina Potomacen erdian, bidexkaz, basoz eta basabizitzaz beteriko gunea da, alde batean Kennedy Center gune artistikoa eta urrunago Georgetowneko unibertsitate dotorea ageri direla.

Potomac ibaiaren luzeran ibilbide asko daude, bizikletaz kilometro ugari egitekoak. Hala, Reagan aireportuaren aldamenetik joanda eta Alexandria hiria igarota, Mount Vernonerrainoko bidea egin liteke, George Washingtonen lehen presidentearen etxalderaino. Ibaian behera dauden hiritara jo ordez ibaian gora eginda, berriz, naturak erabat harrapatzen zaitu: hiriburua utzitakoan eztanda egiten dute Virginia eta Marylandeko basoek udazkenean.

Oztopo natural bat zuten ontziek Potomac ibaian gora joateko, eta horretarako Chesapeake-Ohio kanala eraiki zuten. Egun, oinez zein bizikletaz egiteko bide paregabea da, baita neguko egun hotzetan kanal izoztuetan patinatzeko ere. Baina udazkenean bertan, Georgetown bizikletaz utzi eta ordubete ingurura, hogeikilometrora kanalaren aldamenetik joanda 18. uharteraino, Great Falls ur-jauzi ikusgarriak daude. Bizikletazko ibilbidean Maryland estatutik joan gara, baina ibaia bera muga izanik, Virginiatik ere bertaratu daiteke. Iparraldetik joanda, Olmsted irlarainoko zubia igaro eta ur-jauzia bertatik bertara ageri da. Ahal izanez gero, merezi du Virginia aldeko bisita ere egitea, nahiz eta, pasabide zuzenik ez dagoenez, ia atzera Washingtonerraino itzuli behar den. Baina Virginiatik Great Fallsera dauden begiralekuek erabat perspektiba desberdina daukate. Ibaiertz batean zein bestean, basoaren erdian eta ibaiaren ur-jauzien orroan, oso urrun dirudite AEB ekialdeko hiri handiek, baita Washingtongo monumentuek ere, egiaz hiriburua oso minutu gutxira izan arren.

GIDA PRAKTIKOA

NOLA IRITSI

Washington oso ondo dago komunikatuta, eta hegaldi asko iristen dira Europatik Dulles aireportura. Bilbotik Lufthansa, Air France/KLM, TAP eta Iberia dira konpainia ohikoenak, Madril, Parisen, Lisboan, München edo Frankfurtetik eskala eginda. Denboralditik kanpo 400 eurotik beherako eskaintzak izan dira joan-etorrian, baina ohikoa 700-800 eurotik gora izatea da. AEBko ekialdeko txangoetan ere ezinbesteko geltokia da, tren oso ondo dago komunikatuta, Baltimore, Filadelfia eta New York lotzen dituen trenbidean. Autobusak ere sarri-sarri daude.

BERTAN IBILI


Metro sare modernoa dauka Washingtonek, inguratzen dituen Maryland eta Virginia estatuetako aldirietaraino ere iristen dena (Bethesda, Arlington edo Alexandriara, esaterako). Paseatzeko ere oso hiri egokia da, eta bizikletaz ibiltzeko bideak geroz eta gehiago dira.

OSTATUA

Hiri garestia da Washington, AEBko garestienetakoa. Gertaera bereziak daudenean, gai politikoengatik edo bestelakoengatik, hiriko hotelen prezioak izugarri garestitzen dira. Hala ere, hotel asko daude, bai erdigunean, bai inguruetan; sarritan azken horiek merkeagoak dira.

SUITZAKO ALPEAK

Naturaren artelanik gorena



Herrialde polita da Suitza. Ederrak Alpeak. Mendiak maite badituzu, hara itzuliko zara. Paradisu menditsua, berdea, garbia, aberatsa, askotarikoa... naturaren artelan gorena. Valais kantoiko Goms bailara du erreportaje honek ardatz. Gluringen herri txikia, hain zuzen ere. Heidi eta aitona gustura biziko ziren txoko lasai eta baketsua.

Testua eta argazkiak: **Andoni URBISTONDO**

Suitza bizpahiru aldiz bisitatu ostean, hara joateko beste asmoren bat sortzen denean, ez da zalantzarik egiten. Joan egiten zara. Goatzeko bermea eskaintzen duen eskualdea delako. Alpeak daude han, herrialdearen hegoaldean gehienbat, eta hainbeste eta hain eder dira mendiak, glaziarrek, bailarak eta herrixka dotoreak, ezen ez baitzara damutuko. Aurrez egindako bisitetan Interlaken, Brienz eta Zermatt turismo gune ezagunetan egona bazara, nora joan orain?

Aukera erraza da. Euskal herritarren poltsikora molda daitekeen ostatua bilatu, eta aurrera. Izan ere, hori da Suitzako oztopo handiena. Garestia da –afari arrunt batek 35-40 euro balio du– eta ostatu egokia lortzea funtsezkoa da bisita are politagoa izateko. Baina 100-150 kilometroko tartean bada zenbait turismo aukera on. Prezioa ona bada merezi du, eta gero mugitu behar baduzu, mugituko zara. Gure aukera: Valais kantoia, Goms eskualdea, Gluringen herrixka. 1.300 metro pasatxora dagoen ipar eskiko gune ezagunaren bihotzean. Eskura, Zermatt, Luzerna, Andermatt, Sion eta Airolo herriak. Eta, noski, horiek guztiak zaintzen dituzten mendi puskak: Matterhorn, Aletschorn, Finsteraarhorn, Jungfrau, Blinnenhorn, Weisshorn...

Goms bailarak bakea transmititzen du. Lorategi berde bat da, egurrezko etxe handiak eta guzti. Errepide bat dago eta, nola ez, trenbidea. Suitzarrak ingeniari-tza lan latzak egin dituzte urteetan, eta mendi puntetaraino eraiki dituzte tren eta teleferikoak, pentsaezinak diren tokietaraino. Trena garraibide erabilia da oso, batez ere neguan, asfaltoa elurtuta eta izoztuta dagoenean autoa baino askoz seguruagoa eta azkarragoa baita. Goms bailara ipar eskiko gune ezaguna da. Elurra ziurra da han azarotik apirilera,





**Suitzako Valais
eskualdeak mendi
buelta erosoak,
hirietako turismoa
eta errepidez zein
mendiko bizikletaz
egiteko txango
ikusgarriak
eskaintzen ditu.**

baina ez da atzerritar turista asko bertaratzen. Suitzarrak dira gehiengo. Toki aproposa da hainbat txoko bisitatzeko. Honatx zerrenda.

Aletsch glaziarra: bakarra da Europan. Alpeetako handiena da: 24 kilometro izan zen luze, gizakiok natura suntsitzen hasi ginen arte. Egun agerikoa da bere atzeraldia, baina ikaragarria izaten segitzen du. Mingain izoztu ederra da Eggishorn begiralekutik, 2.900 metrora. Iparrean Jungfrau eta Eiger dauzka, eta, mendebaldean Aletschorn erpina (4.195 metro). Fiesch herritik oinez igo zaitezke, baina 1.800 metroko desnibela gainditu behar da. Komeni da teleferikoa hartzea, sikiera Fiescheralp-eraino (2.200 metro). Bertatik hiruzpalau orduko buelta ederra egin daiteke.

Hanka zuztarrei atseden pixka bat emate aldera, bigarren egunerako Luzerna hiria bisitatzeko erabaki dugu. Suitzan, helmuga bezain erakargarria izaten da bidea. Tarteka erakargarriagoa. Luzernara bidean Grimsel Pass mendatea igaro behar da, 2.100 metrokoa. Igoera eta jaitsiera ederrak dira, zikloturisten amets, baina Grimsel lepoak badu berezitasuna: uren banalerroa da. Hegora doazen urak Mediterraneo itsasora doaz. Iparrerantz doazenak, berriz, Ozeano Atlantikora edo Ipar itsasora.

Luzernak egun erdiko bisita du. Famatua da bere Erdi Aroko egurrezko zubia, 204 metrokoa, Reuss ibaia zeharkatzen duena eta hiri berria eta



Erreportajea zabaltzen duen orrian, Matterhorn edo Cervino mendi dotorea, Zermattetik ikusita. Aurreko orrialdean, ezkerrean, Aletsch glaziarra, Alpeetako eta Europako handiena. Ondoan, Glurigen herria, Goms bailaran, eta atzean, Weiishorn mendia. Beheko argazkian, Klischorn mendira txangoa. Nufennen Passetik. Orri honetan, Zermatt herri turistikoko kale nagusia eta Sankt Gottard mendatea, zikloturisten paradisua. Eskuinean, Siongo Notre Dame de Valere basilika.

zaharra lotzen dituen. Merezi du hiria Museggmauer gotorlekutik ikustea. Bederatzi dorreko gaztelua da. Horietako batetik ederki ikusten da Pilatus mendia, 2.100 metrokoa. Gailurrera daramaten trenbideak, munduko malkartsuenak, eta bihotzak dantzan jartzeko moduko teleferikoak milaka lagun erakartzen ditu. Txanponak prestatu, joaten bazara: 80 euro joan-etorria. Bueltako bidean geltokia Andermatt eski gune ezagunean, eta Furka Pass mendatean. Gailurretik gertu dago Belvedere atsedenean. Errepide ertzeraino iristen zen Rhonegletscher glaziarra duela hamarkada batzuk. Egun 200 metro egin du atzera, eta izotz kobazulo batean ikusten da Rodano ibaiaren sorburua. Europako luzeenetakoa da, 800 kilometro pasa Mediterraneoan bukatu arte.

MATTERHORN ERPINAREN XARMA Hirugarren egunerako, Zermatt herrira bisita. Egona bazara ere, bueltatuko zara, zaindari Matterhorn edo Cervino erpin zorrotza baitu Alpeetako herri ezagunenetakoa. Matterhorn, noski, munduko mendi ederrenetakoa da, 4.478 metrokoa. Buru gainean 2.500 metroko triangulu ikusgarri bat edukitzea sentsazio polita da. Zermatt-era trenean iritsi behar da, bai edo bai; beraz, adi ibili.

Grimsel eta Furka Pass aipatu ditugu. Goms bailara gune perfektua da hainbat mendate ezagun eta garai igotzeko. Hanka zuztar sendoak behar, hori bai. Ulrichen herrian hasten da Nufennen Pass lepora daraman errepidea. 2.478 metro ditu, eta guztiz Suitzan dagoen mendate garaiena da (garaiena Umbrail Pass da, 2.518 metrokoa, baina Italia aldera du jaitsiera,



Bormiora, Stelviotik). Nufenen (Passo della Novena italieraz) aldapa latza da, luzea, bukaezina. Furka eta Grimsel ere gogorak dira, eta samurxeagoak Sankt Gotard-San Gotardo eta Oberalp Pass. Guztiak 2.000 metrotik gorako mendateak.

Nufenen Pass-en autoa utzi eta ordu pare bateko txango erosoak egin daitezke, inguruko ikuspegi dotoreaz gozatzeko. Klischorn gaina da aukeretako bat, 2.789 metrora. Blinnenhorn mendia eta bere glaziarra dotore ikusten dira gainetik (3.374 metro). Eguna osatzeko, Suitzaren alde italiarra ezagutzeko aukera, Airolo herrian. Goms bailaran alemana hitz egiten dute; Airolon, berriz, italiara. Bide batez, esan, azken honetan, Tesino kantoian, salneurriak Goms bailaran baino dezente merkeagoak direla.

Turismo pixka bat, bukatzeko, Valais kantoiko hiriburuan: Sion. 35.000 biztanle eta bi eraikuntza dotore ikusgai. Notre Dame de Valere gotortutako eliza eta Tourbillon eliza. Ostatura bueltan, iritsi baino 10 kilometro lehenago dago Goms Bridge edo Ernen zubi zintzilikaria, Furgangen herrian. Rodano ibai emaritsua oso behean ikusten da, 92 metrora, hain zuzen ere. Bertigoa baduzu, ez pasatu... Eta biharamunean etxera buelta. Lanerako buelta samurra egingo zaizu orduan ere, Leman laku zoragarria inguratzen duten errepideetan Montreux-ko mahastietan barrena. Leman laku gainean, 2.700 metro gorago, Les Diablerets demonioen mendiek agurtuko zaituzte, Suitzako Alpeetara bueltatzeko gonbita eginez.

GIDA PRAKTIKOA

KOKAPENA

Suitzako Alpeek herrialdeko hegoalde osoa hartzen dute, 300-400 bat kilometroko luzera.

Dozenaka mendi, mendate, bailara eder eta beste daude han. Zer egin eta non aukeratzeko arazorik ez.

NOLA IRITSI

Autoz, furgonetan edo autokarabanan joateko urrun samar geratzen da, 1.300 kilometrora, baina norberaren asmo eta denboraren arabera da hori. Hegazkinez Geneva eta Zurich dira sarbide egokienak. Bilbotik hegaldi zuzenak daude Genevara, Easy Jet hegazkin konpainiarekin.

EZAUGARRIAK

Alpeak 1.200 kilometroko luzera eta 400 bat kilometroko zabalera duen mendikatea da. 4.000 metroko langa gainditzen duten 82 tontor ditu, eta ehunka dira 3.000 metrotik gorakoak. Bailara eta glaziar asko ditu, eta horiek zipriztinduz herrixka dotore asko ere bai. Gauza txar bakarra dauka Suitzak: garestia da euskal herritarren poltsikoentzat.

ORBAIBAR

Erromaniko pagano, enigmatiko eta basatia

Testua: **Gaizka Martinez** Argazkiak: **Andrés Ortega**, Getty Images

Izaki pagano handi bat margotua duen eliza, udako solstizioan argi-ikuskizun bat eskaintzen duen baseliza, tenplu kristau baten inguruan jai pagano bat ospatzen duten harburutxoak...

Paganismoa, enigmak eta arte hagitz ezkutatzen dituzte bailaren bailara den Orbaibarren (Valdorba) zutik dirauten tenplu erromaniko bikainek. Bere historia eta herriak nekez kabitzen dira kantutegiak gorde dien doinu malenkoniatsuan. Sar gaitezen ezarritako ordenaren aurka elizak ere matxinatu ziren lurralde basati honetan.



**Lerroon gainean,
Eristaingo San Joan
Bataiatzailearen eliza.
Hurrengo orrialdean,
goian eta behean,
Etxanoko Santi Petri
baselizaren
kanpoaldeko
harburutxo paganoak:
gizon zurruteroa,
musikaria, biluzik
dauden gizon eta
emakumea eta
bihurrikaria. Erdian,
txikixeago, Eristaingo
izaki pagano eta
naturala (Basajaun edo
Bako izan daitekeena)
eta Olletako Andre
Mariaren eliza barruko
zekenkeriaren aurkako
kapitel koloreduna.**

Bailara batek atek ireki dizkigu oharkabeen Iruñea eta Tafalla artean. Nafarroako azken herri horretatik hamar kilometro eskasera, sorbaldaren gainetik begiratzen digu Puiuk, arranditsu, haranaren parte dela ukatuz-edo. Nafar erdialdean gaude, Ager eta Saltus Vasconum-aren arteko arragoan. Erreserba natural zabal batek babestutako paisaia honek udazken partean lortzen du distirarik handiena; hain zuzen ere, urre, arre, gorri eta berdetasun tonuek “Nabarra”ri zentzu osoa ematen diotenean.

Sarrerako xuxurla telurikoa nabarmenagoa zaigu orain. Gogoan diren uholde suntsitzaileenetako batzuen ondorioz, Santsoain ibaia orbain ireki bat da gaur NA-5110 errepidearen aldamenen. Kondearen mendiak eskuinera utziko ditugu, artzainen bideak erabiliz pasiera xumeak egiteko bikainak. Aurrerago, goian, Santsoain eta ehiza-haragietan espezializatutako Coto de la Valdorba jatetxea; eta, aurreraxeago, ezkerrean, Makirriain, Santa Katalina parrokia protogotikoarekin eta jauregi-eraikuntza ugariarekin.

Orbaibar betea da hau, isila eta lasaia. Joan den mendeko 70eko hamarkadaren amaieran hona iritsi ziren Juan Antonio Urbeltz eta Marian Arregi musikariak, entsegu eta emanaldi egun luzeetatik atseden hartzera. Errepideak hamar kilometro egiten dituenen, Olletan, seme-alabak hazi eta, “Baldorba” idazpurupean, toki hau mendeetako ezkutalekutik atera zuen kantaren letra sortu zuten, Lertxundiren ahotsak gero euskal iruditerian sartu zuena. Halarik ere, paisaia bukoliko, harrizko etxe eta kanpai afonikoez haraindi, aise azalduko zaigu bidean izaera basatiagoa duen natura –azkonar, kastore, orkatz edo basurde eran– edota jendarte borrokalariago bat. Alde honetara hurbildu da Rotten XIII hardcore taldea, Ler-

txundiren tonu atsekabetu kanonizatuari “Oi!” oihu batekin desafio eginez eta kronikek diotena eta bertokoen aiurria hobeki atzemanaz.

ZEKENKERIAREN AURKAKO BITXI ERROMANIKOA XII. mendekoak dira 200 kilometro karratu baino gehixeagoko bailara honek gordetzen dituen aberastasun arkitektoniko eta errebelde nagusiak: Jaka, Loarre eta Biarnoko eskolen eraginpean eraikitako estilo erromanikoko 30 tenplu. Landa-erromanikoa deritzon honen gailurrean, Etxanoko Santi Petri, Eristaingo San Joan Bataiatzailearen parrokia-eliza, Katalaingo Kristo Santua, Orisoaingo Tourseko San Martin eta Olletako Jasokundeko Andre Mariaren eliza.

Kalexketako hormigoi zurixkak argitzen du azken hau eta, XXI. mendeko hirigintza bihozgabeaz inguraturik den arren, erromanikoaren harribitxi honek iraganera eramaten gaitu oraindik ere. Arrapietas eta Zenandia errekatxoan eta hiru zubiren artean –horietako bat erromaniko estilokoa, zaharberritua erabat– egotea ere laguntza ederra da.

Olletako jauregi-gunearen ataria da gustu handiz berritutako pareta bakarrek frontoi txikia. Kantxatik, tenplu erromanikoaren hormak teilatuarekin txirikordatzon dituen xake-itxurako moldea ikusten da erraz. Hegoaldean, berriz, sakristia hartzen duen eraikinaren gainean, hainbat motibotako harburutxoak ageri dira herabeki. Iparrean, atarian, hainbat garaitako hilarriak irteten dira zolatik eta, portada apalean, kapituletako landare-motiboek hainbat giza irudiren agur lotsagabeak ezkututzen dituzte.

Habearte koskorren barruan –asteburuetan irekita egon ohi da–, jada ez dira gure zain hormetan Ebanjelioan doktrinatzon zuten Erdi Aroko pintura koloretsuak, Nafarroako Museora eraman baitzituzten gorde eta erakusteko. Agertuko zaizkigu, ordea, landare-dekorazio, eguzki-disko, giza buru eta infernuko eszena beldurgarrietako kapitela gehiago, oraindik ere kolore hondarrekin. Haien sinbolismoagatik, nabarmentzekoak dira lepotik zintzilik poltsa handiz zamatutako pertsonaia zikoitz batzuk, demonio batzuek egurtuta. Tenpluaren akustika ezin hobean, haien izu-oihuen oihartzuna entzun dezakegu oraindik. Paradoxikoa oso, Elizak bere onurarako bereganatu izana seigarren bekatu kapitalaren halako kondena erakusten duen eraikina.

IZAKI PAGANO BATEN BEGIRADAPEAN Geure pausoetan gibelerat, N-121 errepidera itzuliz, Orbaibarreko “hiriak” ditugu zain: Barasoain eta Garinoain. Bien arteko muga NA-5100 errepideak margotzen du eta aurrera doan sakonunean hainbat herritara hurbilduko gaitu: Iratxeta eta bere aletegi erromanikoa –garaiko eraikuntza zibil bakarrenetakoa–; Orisoain eta mendeetan zigilatuta egon den erromaniko aurreko kriptak; edo garai batean auzo-batzarrak egiteko erabiltzen zuten Katalain, Orbaibarraren erdigune. Barasoaingo Angel tabernaren etxeko janari merke eta tradizionalak indarberrituta, aise ikus ditzakegu monumentuok.

Autoz handik bost minutura, ezezaguna bezain enigmatikoa den Eristaingo eliza bisitatu behar da nahitaez –Orbaibarreko Garapenerako El-





kartearen bidez (www.valdorba.org) bisitaldia hitzartzea hobe-. Soltxagatik gertu dagoen baserri txiki bateko bakardadean abandonaturik, X. eta XI. mendeen artean eraiki zuten, ziurrenik hilobi erromatar bateko materiala probestuz. Hala, bere hormen kanpoaldean txertaturik, hilarri erromatar bat eta aldare moduan “Sol invictus” sakrifizio-mahai bat aurkitzen ahal ditugu.

Dena den, Eristainen misterio nagusia bertako hormetan agertzen zaigu margolan moduan. Garinoango alkate ohi eta Astrolabio Románico elkar-teko kide Javier Intxustaren arabera, «harrigarria da» elizan nagusi den fresko teknikaz sorturiko pintura-irudikapenaren kasua, «sinbolismoz betea eta begi hutsez izaera profanoarekin lotzen duguna». Aurpegi atse-gineko izaki bat, zeinaren bizarretatik bi landare ateratzen baitira, mahatsondoaren xirripa eta kanpaiak gogorarazten dituztenak eta habeartearen erdiko aurre erromanikoa behar duen arkuaren bi aldeetatik isurtzen direnak. Horrek guztiak, dio adituak, «kristautasunaren aurreko mito baten irudikapenaz hitz egiten digu, natura menderatzen duen jaun basati batez». Kristau galbaheak, baina, Basajaun izan zitekeena, edo erromatar Bako jainko jai eta zurrut zalea, San Joan Bataiatzaile bihurtu zuen.

Erreferentzia mitologikoez eta erromatarrez gain, koloredun pinturretan ezkutaturik, Erdi Aroko antzerki-gidoiak daude bertan, deabru-kiliki batekin nola jantzi edo Aste Santuko ospakizun zaratzatu eta beldurgarri bat –hilkutxekin eta hildako gisa moztututako aktoreekin– nola antzeztu azaltzen digutenak.

JAIA UDAKO SOLSTIZIOA OSPATZEKO Urrutiago, errepidearen alde batean, Mairagako urtegia baino lehentxeago, sortzen da Etxanoko Santi Petri, gaur egun desagertutako jauregi baten eliza izan zitekeena eta, Orbaibarreko guztien artean, baseliza “iraultzaileena”. Lehenik, ezohikoa den moduan, eki-mendebaldera begira dago eta portada iparralderantz dauka. Apartekotasunak habeartearen kanpo eta barruko argiztapenarekin du zerikusia, nahiz eta eraikinaren egiturak barruan efektu akustikoak ere lor-tzen dituen.

Antzerki emanaldi bat balitz bezala, ikuskizuna urtean behin jazotzen da, udako solstizioan: tradizio paganoentzat, egun magikoa. San Joan bezpe-ran bisita gidatuak antolatzen dira orain, teilatu-hegalaren azpitik irteten diren harburutxoak banan-banan eguzkiak nola argiztatzen dituen mires-teko. Arkitektonikoki paregabea dela adierazteaz gain, fenomenoak sakon-tasun politiko, sozial eta espirituala uzten du agerian. Izan ere, portadako eta teilatuko harburutxo horietan ez dago kristau irudirik, ludikoak eta profanoak baizik. Buruak festa pagano bateko partaideak dira: musikariak, dantzariak, biluzik eta mozkor dauden gizon eta emakumeak, bihurrika-riak... baita hezitako hartz bat ere!

Andrés Ortega *San Pedro de Echano. El misterio del templo* liburuaren egi-learen ustez, eliza horren diseinua pertsona ikasi baten izaera libre eta pri-bilegiatutik eratorriko litzateke, katolizismoaren arau zorrotzak zalantzan jartzeko gai zen eta horretarako askatasuna zuen. Bailara honetako mo-numentu eta biztanleengan atzematen ahal dugun askatasun hori bera.





Musika jaialdi batek agurtuko du **Izan Bidea** dinamika

URRIAK 8

Urriaren 8an, larunbatearekin, amaituko du Sarek Izan Bidea dinamika Donostian. "Etxera bidea gertu" lelopean manifestazioa egingo da goizean eta arrats partean hasi eta goizaldera arte luzatuko den musika jaialdi erraldoi batek beteko du Illunbe. Hitzorduan, besteak beste, Belako, Rotten XIII, Esne Beltza, Su Ta Gar, Zea Mays, Liher, Doctor Deseo, Eñaut Elorrieta, Josu eta Gari (Hertzainak), Dupla, McOnak, Trikidantz, Ttek elektrotzaranga, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus izango dira. Horrela emango du amaitutzat Sarek 3.127.326 kilometro egiteko erronka.

Euskal Herriko preso, iheslari eta deportatuen giza eskubideen aldeko plataformak iragarri zuenez, musikaz gain, txikienentzako gune bat ere izango da bertan, eta Porrotxen parte hartzea eta «beste zenbait jarduera» egongo dira.

Herritar sareak aitortu zuen aurrerantzean ere lana dagoen arren, «erronka honi amaiera eman ez ezik, urte luzeetan urruntze-politikaren amaieraren alde aritu diren herritar guztiak batu nahi» dituztela, «politika honen amaiera gauzatzen ari den honetan, berau egia bihurtzeko emaniko bultzada eskertu eta guztiona den lorpen hau guztiz gauza dadin aldarrikatzeko».

Muguruzaren «Black is Beltza II» filma, Azpeitian

URRIAK 8, 9 ETA 10

Donostiako Zinemaldian Anoetako Belodromoan estreinatu ondoren, Fermin Muguruzaren «Black is Beltza II: Ainhoa» filma Azpeitiko So-reasu antzokian emango dute. Hiru emanaldi izango dira, urriaren 8an (22:00etan), 9an (19:30ean) eta 10ean (20:00etan), hain zuzen, eta sarrerak bost euroko prezioan eros daitezke.

Zeharkatzen gaituzten bideak, eztabaidagai

URRIAK 6-22

Nabarralde Fundazioak Ondarea, Paisaia eta Globalizazioaren VIII. sinposioa ospatuko du urriaren 6tik 22ra, «Zeharkatzen gaituzten bideak» izenburupean. Nafarroako puntu desberdinetan burutuko den jardunaldiko gai nagusia bi-deak izango dira, historikoak (Done Jakue kasu) eta gure nortasuna eta kultura markatu dutenak.



ESKOZIAKO UHARTE BELTZERAKO BIDEAN DA TINTIN (ETA EUSKARAZ BERRIZ ERE)

Tintinen Abenturak bildumaren zazpigarrenean, Belgikako kazetaririk eta munduko komikietako bidaiari ezagunenak gaizkile batzuk pertsegituko ditu Eskoziaraino, UharTE Beltzeko Ben More gazteluko harresiek gordetzen duten sekretua ezagutu arte. Garaiko zenbait elementu islatzen ditu Hergék komiki honetan, modernitatearen itzal luzeak eta XX. mendeko aurrerapen teknikoak (telebista, irratia, hegazkinak, autoak, inprenta...) bilduz. Bertsio gehien dituen Tintinen albuma da hau, laugarrenez ekarri dena euskarara, itzulpen berri batean oraingoan.

UharTE Beltza
Hergé
Inazio Mujika Iraola (itzulpena)

Zephyrum eta Trilita, 2022
64 orrialde. Euskara

«72-22 Topaketak», kultura eta arte diziplina guztiak mundu garaikidea birpentsatzeko

URRIAK 6-18

Atzerriko Peter Sloterdijk, Donatella Di Cesare, Viktor Kossakowski, Svetlana Aleksievich, Belén Gopegui, Odil Bright, José Luis Villacañas, edota bertako Teresa Catalán, Castillo Suarez eta Luisa Etxenike, eta, hala, 100 bat aditu bilduko dira bi astez, Iruñea munduko pentsamendu, arte, zine, antzerki, musika, kultura eta literaturaren erdigune bihurtuz. Egungo gizartearen erronka premiazkoenen inguruko hausnarketa hedatzea da topaketa hauen xedea.



**IRUÑEKO 72-22
TOPAKETAK**

Pamplona, Navarra | Octubre 6-18 Urria | Iruña, Nafarroa



Testua: **Gaizka Martinez** Argazkiak: **Delil SOULEIMAN** | AFP

Estatu Islamiarraren esku 2013tik 2017ra, jihadisten base militarra izatera heldu zen Qal'at Ja'bar edo Qalaat Yaabara (ingelesez) gotorlekua. Siriako gerraren erdi-erdian egon ostean, bake erlatiboa aurkitu du 2022an eta, horri esker, baita ia hamar urtez faltan izan dituen bisitariak ere.




Qal'at Ja'bar

Irla bihurtu zen zitadela

Buhayrat al-Assad -edo Assad soilik- 80 kilometroko luzera eta 8 kilometroko zabalera duen laku artifiziala da, 1973. urtean Eufrates emaritsua Al Raqa hirian -Siriako iparraldean- geratzea erabaki zutenean sortua. Tabqa presari esker, ubide-sare zabal batek ibaiaren bi aldeetako lurrak ureztatzen ditu eta aldameneko Alepo hiria edateko urez hornitu. Aldi berean, ur bazter aberatsek ekonomia -arrain-industria batik bat- eta bioaniztasuna sustatzen dituzte.

Tabqatik autoz ordu erdira, ur andanaren gainaldean igerian-edo, buztinezko adreiluz eta zizelkatutako harriz eraikita dagoen nenufar bat agertzen zaigu, oasi bat, urteetako giza joan-etorriek eta haizeek marruskatua izan bada ere, zutik oraindik. Ez da, baina, landare bat, bere paretetan iragana zizelkaturik duen Qal'at Ja'bar zitadela baizik.



Gaztelua 35 gotorleku dituen horma batek inguratzen du eta bere diseinuak Aleppo goitorlekua gogorarazten du.

Hobekien kontserbatutako siriar gotorlekuen artean dago, hainbat zahar-berritzeren ondorioz. Siriako mongoliar inbasioetan erabat kalteturik izan ostean, XIV. mendean berri zuten lehen aldiz, eta 60ko eta 70eko hamarkaden artean, azkenekoz, uretatik babesteko asmoz.

TURKIAR LURRALDEA SIRIAREN ERDIAN Udako eguzki gupidagabearen pean, familia taldeek argazkiak ateratzen dituzte horma gorri zarpailetan igota edo leiho eta zubietara irtenda. Gehienak gazteluak gordetzen duen zama historikoaren kontziente dira, askok hona egin ohi baitzituzten txikitan ikasbidaia.

Haien seme-alabek eskoletan entzun dute ere, esaterako, hemen VII. mendetik aurrera Dausar kokagune aurreislamiarra bazela, laurehun urtez, gerraz gerra, eskuz esku igaro zena seljukturaren eta mamelukoen garaiko –XI. mendetik XVI. mendera– defentsa leku bihurtu arte.

XX. mendearen erdia, 1921etik 1973ra, Turkiako lurraldea izan zen eremu txiki hau. Izan ere, Soliman Schah-en hilobia izateagatik, herrialde horren



mugetatik at babesten zuen soldadu turkiar tropel batek. Osman I.aren aitona (K.a. 1323-4) izan zen Soliman Schah, Otomandar Inperioaren sortzailezat hartua. Ur mailaren igoera zela eta, bere hilobia 86 kilometro iparraldera lekualdatu zuten eta hara mugitu zen turkiar garnizio militarra ere, Qal'at Ja'bar siriar agintepera igaroz.

ESTATU ISLAMIKOAREN ONDORENGO BISITARIAK Hogeita hamabost zubi eta meskita bat dituen gotorlekuarekin lotzen du ibaiertza erre-pide estu batek. Handik sartu ziren Estatu Islamikoko kideak eta handik atera zituzten ere irlako museoak babesten zituen dozenaka objektu. Bertan gotortu ondoren, operazio-zentro militar eta espetxe bihurtu zuten gune estrategikoa, harik eta, 2017an, kurduek jihadistien eskuetatik berreskuratu zuten arte.

Gerrak itsasontzi-ibilaldiei eta piknikiei utzi die tokia orain, gotorlekua eta Assad lakua bera familia helmuga bihurtuz. Harresi ikaragarrian itzaletan, musika arabiarrez lagundurik, nargilea erretzera hurbiltzen dira gazteak orain, edo lakuaren ur gardenetan beroa arintzera.

Bost metroko garaiera duen oinarri karratu baten gainean dagoen minarete zilindriko bat altxatzen da gotorlekua hartzen duen mendixkaren erditik. Goiko partea Nur al-Din emirra aipatzen duen inskripzioz markaturik dago. Minaretearen forma zilindrikoak erabateko haustura ekarri zuen Siriako tradizioan.

“GABO MAITEA”: GARCIA MARQUEZI ESKUTITZAK

«Gabo maitea»; hala agurtzen zuen Fidel Castrok Gabriel Garcia Marquez idazle kolonbiarra, aurkitu berri diren eskutitzetan irakur daitekeenez. Kubako presidente ohiaren gutun amaigabeen ondoan agertu dira Robert Redford, Pablo Neruda, Bill Clinton, Woody Allen, Marcos Kmandanteordea... eta, hala, 150 pertsona ezagunenak ere, “Bilobak” inskripzioa zuen kutxa zuri batean sarturik.

Bere ondare osoa gordetzen duen Texasko Unibertsitatera bidali aurretik eta Literatura Nobel saridunaren familiari esker, gutunotako 50 “El escritor sí tiene quien le escriba” izenburupeko erakusketan ikusgai egon dira udan zehar Garcia Marquezek Mexikon zuen etxean.

Badira asko minbizia diagnostikatu ostean bere osasun egoeraz kezkatzen direnak, gonbidapenak, formalagoak, eskakizunak, honetaz eta hartaz dihardutenak edota maitasun izugarriz betetakoak, Nerudarenak, esaterako.

Bide batez, Emilia Garcia bilobaren arabera, Gabori nolabaiteko nagikeria ematen zion jasotzen zituen gutunei erantzuteak. «Berak nahiago zuen zuzenean telefonoa hartu». Claudio CRUZ | AFP



JAI ERRALDOIA KRISHNAREN JAIOTZA OSPATZEKO

Krishna Janmashtami, “Krishna jainkosaren jaiotzaren abagunea”, urtero abuztu-irailean hinduistek ospatzen duten jaia da. Bi urteko etenaldiaren ostean, berriz ere beren jainkosa gorena laudatu dute barau eginez, elkarrekin abestuz eta otoitz eginez, loreak jaurtiz, giza gazteluak eginez, musika joz, bazkari bereziak partekatuz, gau-bijiliak eginez eta Krishnaren eta Vixnuren tenpluak bisitatuz. Narinder NANU | AFP

IZOTZ-IBAIK URTZE BIDEAN TIROLEN

Tiroleko (Austria) Jamtal glaziarra (Jamtalferner) urtero metro bat urritzen joan da. Aurtengo udaz geroztik, ordea, metro bat baino gehiagoko altuera galdu du.

2022ko uztailan, Galtuer inguruan, harriz harri, izotz-laginak biltzen ibili dira Austriako Zientzien Akademiako Violeta Lauria eta Andrea Fischer glaziologoak. Azken honek 20 urte eman ditu Alpeetako glaziarrek aztertzen eta kezkatuta dago oso. «Aurtengoa izugarria da aurreko 6.000 urteekin alderatuta. Hala segituz gero, bost urte barru glaziarra ez da existituko». Kerstin JOENSSON | AFP



HEGALDIA LABURTU DUTE AURTEN ZIKOINEK

Afrikarako bidean geldialdi bat izan behar zuena helmuga bihurtu zen uda honetan zikoina aunitzentzat. Iberiar penintsulako zabortegetan elikagai ugari aurkitu ohi dituzte hegaztiok eta, horri esker, haize ufada bortitzengatik arriskutsua zaien Gibraltarko itsasartea zeharkatzea ekidin dute aurtengo ezohiko beroaldian. Pierre-Philippe MARCOU | AFP




JADEZKO ITSASOA ETA HANGO KOMUNITATEAK ARRISKUAN

Klima aldaketaren eta zentral hidroelektriko berrien eraginez, %10 egin du gora urak jada Turkanan, munduko basamortu-aintzirarik handienan. Horren ondorioz, Jadedzko Itsasoa deritzonaren inguruan bizi diren El-molo komunitateko kideak urte gutxiko tartean bigarrenkoz lekualdatu behar izan dituzte. Simon MAINA | AFP



BISITARIAK BUELTRAN DIRA RAPA NUIN

Koronabirusa dela-eta 872 egunez bisitaririk hartu gabe egon ostean, turistak itzuli dira Rapa Nui edo Pazko uhartera. Abuztu hasieran ailegatu zen lehen taldea eta harrezkeroztik pixkanaka ireki da berriro bidaiari-fluxua, astean bizpahiru hegaldi gehiago iritsiz. Aurrerantzean masifikazioaren kontrolak eta egoera epidemiologiko aldakorrak baldintzatuko dute rapa nui herriaren lurraltera iristeko aukera. Jeremy RICHARDS | Getty Images



TORNADO BATEN BIHOTZEAN BEZALA

Haizea, kea, ura eta abiadura senti daitezke tornado baten bihotzean. Hori simulatu nahi du Futuroscope frantziar jolas-parkean estreinatutako atrakzioak. Adrenalina eta beldurra, 420 metroko pantaila zirkular baten erdian, 30 kilometro orduko abiaduran biran doan 80 tonako plataforma baten gainean. Guillaume SOUVANT | AFP



ANGKOR WAT, BERRIZ ERE TXIMINOEN BIZITOKI

Hamarkadetako isileko ehiza dela eta, Kanbodiako Angkor Wat tenpluaren aldirietan bizi ziren animaliak desagertzera kondenaturik egon ostean, berreskuratze-programa batek tximinoak beren bizitokira itzularazi ditu, Unescok munduko ondare izendatutako tenpluaren aldamenera, alegia. Tang CHHIN SOTHY | AFP



AKROBAZIAK PIRAMIDEAN

Egiptoko Aire Indarren Silver Stars eta Hego Koreako Black Eagles aerobatika taldeek ikuskizuna eskaini zuten Gizako piramideen inguruetan. Bi taldeek akrobazia-maniobrak egin zituzten herrialde bien arteko adiskidetasun harremanak islatzeko. Egiptoko monumentu hauen inguruan egin den estreinako aire-ikuski-zuna izan zen eta 800 gonbidatu eta turistek ikusi zuten bertatik bertara. Mahmoud

KHALED | AFP



MURAL ERRALDOIA PHILLIPS ETA PEREIRA GOGORATZEKO

And Santos artista brasildarrak 152 metro karratuko murala margotu du Belem hirian (Brasil), Dom Phillips kazetari britainiarraren eta Bruno Pereira indigena gaietan aditu brasildarraren omenez. Tiroz hil zituzten biak Amazonian, ezkutuko ehiza- eta arrantza-sare bat salatu ostean. Elkartasun eta protesta oldea eragin zuen hilketak. Cristino MARTINS | AFP



DENBORA GALDUA BERRESKURATZEN

Frantziako Liburutegi Nazionaleko adituek "Denbora galduaren bila" Marcel Proustek idatzitako XX. mendeko eleberrri monumentalaren zaharberritze lanak hasi dituzte. 2020an, instituzio honek inoiz ikusi gabeko eskuizkribua lortu zuen, Bernard de Fallois editorearen eskutik. Inoiz ez da berandu denbora galdua berreskuratzen hasteko. Stephane DE SAKUTIN | AFP

A full-page photograph of a mountain valley. A dirt path leads from the foreground into the distance, passing through green grassy slopes. In the middle ground, a small village with a church is visible. The background features steep, rocky mountains under a blue sky with scattered clouds. Sunlight rays are visible on the right side of the image.

Lurralde
berrietara
goaz

bidaiari

Hilabetero zure kioskoan **naiz:**-en bidaia aldizkaria euskaraz